

Bi irakasle etorri dira Hagako Unibertsitatetik, bisitatzera euren Erasmus ikasleak

2009/11/10

Peter Hoogenboom eta **Sigurd Rimmelzwaan** Hezkuntza irakasleak dira Hagako Unibertsitatean, eta egun hauetan HUHEZIn daude pare bat egunez, bisitatzen bi ikasle, **Dexter** eta **Nathalie**, biak Hagako Unibertsitatekoak eta Erasmus egonaldia egiten HUHEZIn, Gabonak bitartean.

Eskoriatzan dauden bitartean, hainbat bilera egin dituzte aipatu ikasleekin, hauek praktikak egiten dituzten ekoletan eta Erasmus programako arduradunekin ere. Bisitaren helburua da ikustea euren ikasleak zelan dabilzan, HUHEZI eta inguruak ezagutzea eta informazioa trukatzea bertako irakasleekin. Adierazi dutenez, gustura doaz hemendik, euren ikasleak ere oso pozik daudelako, bai ikasketa programarekin eta baita Euskal Herrian aurkitu duten giroarekin.

Hemengo bisita amaituta, Soria aldera egingo dute, han beste ikasle batzuk dituzte-eta Erasmus programaren barruan. Eta handik, Holandara itzuliko dira, bi egun barru.

Argazkian, ezkerretik eskuinera: Sigurd Rimmelzwaan (Hagako Unibertsitatea), Txema Egaña (HUHEZI), Agurtzane Bikuña (HUHEZI) eta Peter Hoogenboom (Hagako Unibertsitatea).

